

## KOMUNIKAZIOA ETA ZIGORRA

### Zeregina

Gogoeta egin behar da komunikazioaz, kasuak analizatzearen bitartez; nola estrategia itxuraz positiboek gatazka handitzen lagundu dezaketen; norberaren kasuak ere azalduta egingo da analisisia.

### 1. Kasua

Hezitzaile bat gelan sartu da eta mutiko bat aurkitu du oihuka eta aulkiak lurrera botatzen, iskanbila handia ateraz. Hurbildu zaio, jaso du aulki bat, eta eskatu dio eskola ondoren geratzeko une batez, hitz egiteko.

Hezitzailea: Pello, ez dut uste oihuka ibiltzea eta aulkiak lurrera botatzea jokaera oso egokia denik...

Pello/Enrike (etenez): Zirika eta zirika ibili zaizkit. Haien errua da. Nire kontra ari ziren.

Hezitzailea: Ez dut zalantzarik, izango dituzu haserretzeko arrazoiak... baina nahikoa da.

Pelloc eten egiten dio, eta oihuka hasten da berriro: Muturra hautsiko diet ni zirikatzen jarraitzen badute.

Hezitzailea (Pelloc amaitu arte zain egon, eta irmo): Pello, molestatu egiten naute zure oihuek, aulkiei ostikoka jarduteak. Altzariak denonak dira...Beti zabilta istilutan. Aulki bat hautsi duzu. Gelditu, nahikoa dugu.

Pelloc berriro eteten dio, oso haserre: Zergatik gelditu behar dut nik? Eta haiek zer, zergatik beti ni? Atea danbateko batez itxi eta alde egiten du.

Hezitzailea atzetik doakio (irmo): Pello, nik zuri entzun dizut, eta zuk ere niri entzutea nahi nuke. Nahi baduzu, gero jarraituko dugu hizketan, zer egin zu zirikatzen hasten direnean eta haserretzen zarenean...Baina kontuan hartu behar duzu ezin zarela hasi oihuka eta bazter guztiak hausten. Gauzak hausten badira, konpondu egin behar dira. Eskola-orduen ondoren, geratu egin beharko duzu...

## 2. Kasua

Auzo Etxeko gela batean, goiz batez, itzalgailu guztiak hustuta eta lurra zikinduta agertu dira.

Auzo Etxeko zuzendaria, haserre: Honek ez dirudi auzo etxe bat. Gazte-jende honekin ezin da lan egin. Nahikoa dugu, hau gehiegizkoa izan da. . Neurri gogorrak hartuko ditut. Mukizu hauek ez dute berriz hankarik jarriko etxe honetan.

Hezitzailea: Prozesu mantxo doa, pazientzia behar da. Jabetu zaitez horretaz.

Zuzendaria: Jabetzen naiz, jabetzen naizenez. Haiak ez, ordea, eta ezta zuek ere.

Hezitzailea: Gehitxo da, bai, baina ez da hain larria ere. Azken batean, ume batzuk dira.

Zuzendaria: Horixe besterik ez nuen behar. Gainera, errugabe joko dituzue.

Hezitzailea: Ez. Esan nahi dut ez dituztela neurtzen ondorioak, eta guk ere ez dugula haien mailan jarri behar. Zentzuz jokatu behar dugu.

Zuzendaria (etenez, eta gero eta haserreago): Ba ordua da neurtzen ikas dezaten. Ez dute berritri hemen hankarik jarriko, horrelaxe ikasiko dute. Zuzendaria neu naiz, eta zuek bai jartzen zaretela haien mailan. Orain, zera, auzo etxea desegiten dutela, eta neu naiz zentzugabea?

### 3. Kasua

#### GATAZKA-EGOERA BAT 15 URTEKO MUTIL BATEKIN

“Endika” 15 urteko mutil bat da, eta duela 6 urtetik hona harrera-etxeetan bizi da. Oraingo etxea nerabeena da, eta bi urte eta erdi darama bertan.

Duela astebete, sakelako bat oparitu zioten, interneterako sarbidea 24 ordukoa duena. Aitak eta haren neska lagunak oparitu diote.

Esan beharra dago “Endika”k hilabeteak (edo urteak) daramatzala aitaren eta amaren arteko liskar oso larriak jasanez, bai eta amaren aldeko familia ugariarenak ere. Denboraldi horretan, mutilak ez du hitzez adierazi bere ondoeza, oso barnekoia eta izaera hotzekoa baita, baina hezitzaile taldea ohartu da, mutilaren jokaeragatik eta ezagutzen dutenek esanda, ondoez emozional handia duela.

Badira egun batzuk ez dituela betetzen harrera-baliabidetik ezarritako ordutegiak, ez du ikasten, ez etxeko lanik egiten, oso modu txarrez egiten die aurre hezitzaileei...

Gatazka gertatzen den egunean, “Endika” liskarzale agertzen da oso ondo konpontzen ez den hezitzaile batekin. Beste hezitzaile batek egiten ditu bien arteko bitartekari-lanak, eta jakinik gaztea lehertzeko zorian dela, aurre egiten dio, zer gertatzen den ikusteko.

Nerabea oso oldarkor jartzen da, iraindu egiten du hezitzailea, eta hark, ikusirik talkaren arrazoia sakelakoa dela, emateko esaten dio. “Endika”k ezetz esaten dio, eta, tirabira batzuen ondoren, aitari deitu eta zer gertatzen den azaltzen dio, gazteak sakelakoa oparitu zion pertsonagandik entzun beharra baitauka ez dela ondo jokatzeko ari. Hezitzailea aitarekin hizketan ari den bitartean, “Endika” hezitzaileen gelan sartzen da, oihuka eta bazterrak hautsi beharrean, mehatxu egiten dio hezitzaileari, ondo-ondora hurbiltzen zaio...; hezitzailea gelatik aterarazten saiatzen da, eta orduan mutilak leher egiten du, bere onetik ateratzen da eta jotzeko mehatxua egiten dio...